



Teknologia altuko mekanizazio zentroa, eta plaka fotovoltaiko batzuk eta haize errota bat, Usurbilgo Lanbide Eskolan. USURBILGO LANBIDE ESKOLA



USURBILGO LANBIDE ESKOLA, ENPRESEKIN ELKARLANEAN

Usurbilgo Lanbide Eskolako ikasleek praktikak gerora lan egingo duten enpresa beretan egiten dituzte. Enpresen eta Usurbilgo Lanbide Eskolaren arteko lotura estua baita, eta elkarlanean aritzen dira.



Zelula automatizatua. USURBILGO LANBIDE ESKOLA

Usurbilgo Lanbide Eskola lanbide heziketa eskaintzen duen zentro bat da. Prestakuntza ematea da haren eginkizunik nagusia, eta, zeregin horretan, etengabe saiatzen da eskaintza hobetzen, metodologia eta ekipamendua egokituz.

Ikasketa prozesuan, ikaslearen parte hartzea bultzatzen duete Usurbilgo Lanbide Eskolako irakasleek, eta, horretarako, ekimena, erantzukizuna eta talde lana sustatzen duete ikasleengan.

Aldi berean, ikasleek enpresetan aurkituko duten ekipamendu eguneratu bera erabiltzen duete eskolan, eta, ondorioz, erraz hasten dira beren ogibidean lanean, aurretik prestakuntza egokia izan dutelako.

Lanbide Heziketa eskaintzen duenez, Usurbilgo Lanbide Eskolak oso harreman estua du enpresaren munduarekin, eta ikasleek gerora lan egingo duten enpresetan egiten dituzte praktikak. «Enpresa horietan lan egingo du-

ten ikasleak prestatzen ari gara», Usurbilgo Lanbide Eskolako arduradunen hitzetan.

Krisi garai hauetan, harreman hori are beharrezkoagoa da. «Enpresarentzat hori mesedegarria da, etorkizunean bere enpresan lan egin ahal izango duen langilea aurretik ezagutzeko aukera duelako, eta guretzat ere bai, benetako lanbidearen gaineko prestakuntza eskaintzen dugulako».

PRESTAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA PROIEKTUAK

Usurbilgo Lanbide Eskolan langile eta langabeen prestakuntza eguneratzen saiatzen dira.

Gainera, Tknika erakunde publikoaren bitartez berrikuntza proiektu askotan parte hartzen duete, eta, hala, ikasleei transferentzia teknologiko ahalik eta azkarrena ahalbidetzen diete.

TKGUNE ZERBITZUA

Lanbide Heziketako Sailburuordetzak babestuta, Euskadiko Lanbide Heziketako ikastetxeak enpresari garapen proiektuak egiteko aukera ematen hasi dira, Tk-

gune sarea sortuz. Horrela, Usurbilgo Lanbide Eskola prest dago Mekanizazioa eta Energia ardatz teknologikoen inguruan enpresari zerbitzu teknologikoa emateko. Hainbat proiektu garatuak dituzte enpresek elkarlanean, eta beste hainbatetan lanean ari dira.

Tkgune Asmaolaren bitartez, enpresek beren ekoizpen prozesua hobetu dezakete, prototipoak eta tresneria prestatu, prozesuak automatizatu, monitorizatu, eta abar.

Tkgune Energiaren barruan, energia berriztagarrien inguruko aholkularitza, eraginkortasun energetikoaren inguruko azterketak, mikrosare autonomoen dimentsionamendua, energiaren kudeaketarako instalazioen kontrola eta monitorizazioa, biosarearen kuantifikazio energetikoa, eta energiaren ildoko beste hainbat proiektu landu ditzakete enpresa, udaletxe eta bestelako eragileentzat.

3D INPRIMAGAILUAK

Usurbilgo Lanbide Eskolak hiru dimentsioko inprimagailu eta eskanerrez osaturiko ikasgela bat

eskaini nahi dio gizarteari, nahi duen enpresa, teknikari edo partikularrek teknologia berri honen inguruko formazioa jaso dezan, eta ostean nahi dituen praktikak

Usurbilgo Lanbide Eskola aitzindaria da energia berriztagarrien arloan; berrikuntza du kezka nagusi

‘www.lhusurbil.com’ helbidean lor daiteke Usurbilgo Lanbide Eskolaren ikasketen eskaintza eta informazio gehiago

egin ditzan, prototipo digitalak pieza fisiko bihurtuz.

ENERGIA ASKOKO GALDARA GELA

Usurbilgo Lanbide Eskolari berrikuntza kontuan hartzen duen sari nazional bat eman diote duela gutxi, hainbat enpresarekin batera garatu duen galdara gelarengatik. Galdara gela horretan hainbat energia berriztagarri baliatzen dituzte eraikin bateko berokuntza sistemarako.

Gainera, erabilera didaktikoa ere ematen diote, galdara gela

hori oso baliagarria baita ikasleei prestakuntza praktikoa emateko. Eskolako arduradunak Madrilerako joango dira laster sari hori jasotzera, Hezkuntza Ministerioko

Lanbide Heziketako zuzendaritzaren eskutik.

Horrez gain, Repsol Fundazioak Usurbilgo Lanbide Eskola hautatu du berrikuntza eta ekin-tzailetasun proiektuen deialdi batean parte hartzeko. Guztira, Espainiako Estatuko Lanbide Heziketako bost institututako ikasleek parte hartuko dute. Usurbilgo Lanbide Eskolako ikasleekin batera, hain zuzen, Madrigo institutu bateko eta Bizkaiko hiru institututako ikasleek ariko dira.

Usurbilgo Lanbide Eskola Usurbilgo (Gipuzkoa) Etarte bideko 9. zenbakian dago, Zubieta auzoan. Bertan egin daitezkeen ikasketen inguruko informazioa www.lhusurbil.com helbidean lor daiteke, eta 943-36 46 00 telefono zenbakira deituz gero nahi adina argibide eta azalpen eman-got dituzte atsegina handiz.